

ARTETA

Arteta, utsik. Arteta, berez, arteta da eta.

Ex da atzo goizekoa Arteta-ren arterioaren orok zerbait idatzeko gogoak nerbillena. Bakarrik, mila gauza ditut era herean noizbait idatziz jartzeko asmoan. Denbora dabil gurarien kontra. Bizitzarako eginkizun bearezkoak jaten ditzkie ordurik geienak ta denbora urri gelditzen zaigu gogozko bearreri eskeintzeko.

Egun auzetan Elhar-ko "Cultural Recreativa Arrate" alkartean izan degu Dapena anderieñoaren erakusketa edo esposizio bat. Gal soziala zuan bere pinturak: langille, nekazari, arrantzale, famill, erbestera, presoedegi ta abar. Gizona ta gizonari zuzenki dandaen problemak oñarri arturik. Beli bearrizarekin arduraturik. Ta, bere arterioak, nola ez, Arteta zekarkidan oromifera, Arteta aundia. Gure artistetarik beste mundura joan ziranen artean onena noski.

Dapenak, bere bereak ditu koloreak, bear bada Van Gogh-engandik edo zerbait influentziatunak. Baina, irudiak, zerbait luzeekin Greco-ren erara estilizatunak izanarren, Arteta-ren kutsua daramate. Gata beriz zer esanik ere ez. Bear bada sentimentu sakonago bat adieraziz, baina Arteta-ren kezka ez-ezik, Arteta-ren oñarrikakoak ditu bere arterio erak.

Izan ere, Arteta da beragandik geroztikako Euskalerririk pintoaren artean erroko iturririk bere alenak utzi dituana. Aranoa eta Landu oso gutxi urrundu dira be-

re eskolatik. Dapena zerbait geiagoko. Baina Ibarrola ere, berak alatoriu duanez, beste influentzia batzuen artean, oñarrikako malxuratariko bat Arteta duanetakoa de-
gu.

Gure pintore aundi au, Bilbon jalo zan 1879-arrren urtean, eta Mexico-n il 1940-an.

Arteta sortzaille bat zan, sortzaille bezela gorengo mailakoa ez bazan ere. Impresionismoari, geroztiko kubismoaren mulla jasoaz, bere sentipen eta jakituriaren bidez adierazpen edo espresio berri bat eman xion. Adierazpen ori, teknikatik aparte, gure erriaren arima zan. Gure apal eta langillea. Oraindik-orain ere, gure errian, langilletasuna ta apaltasuna bai dira saillik nagusiena eta berezi-
na. Ta, bear bada, itxaropeneko etorkizun bakarrera garasmakia-
na. Fusillak menderatzaille badira ere, aitzurrak dira erriak pakera ta zorionera daramazkienak. Arteta-k ongi adierazten digun bezela, bere pintura bide dalarik.

Diru-bankuak, berez, geiokio ondasunik eman ez badigute ere, alortu bear Banco Guipuzcoano-ak aurtan Arteta-ri eskeint dion gorazarrea, bere egutegia gure pinto ori opaldutzean.

Gure artistegandik inork merezimendu aundirik izatekoan, Arteta-k du aspalditik merezimendu ori ondo irabazia.

Bere arterioa ez da ausarta, baina bera bezin apala da. Bear ha-

da ez da izango, artista bezela jeno bat, era berri edo estetika berrien sortzaille, gaur gure artean Oritzta, Txillida edo Baxterretzen diran bezela.

Adbidez, Oteiza-ren kezka ta ardura guztiak arterio experimentatut batera itzulink daude; estetika berrien billa, Oteiza eskultorea-ren irudieri ondo dagokio Picasso-ren esatera ura: "Pinto los objetos como los pienso, no como los veo". Mendera aurrea aru narik dabil. Arcañtik eskelini xion poemari ongi esaten zuan bezela: Oteiza, profeta bat da. Ta, or dago artearen nausitasuna, era berriak sortzean.

Arteta berri, gure erriaren adierazle trebe bat. Inork ez du eskaldun arrazako jendea orren ongi menderatu. Bai arpegi eta bai soliez, bai aur eta bal nagusi, zar eta gazte, Euskalerritik kanpora nekaz arkitu genezakean eras ta jutuak ditin. Artistak bere alkolotian zeraman antropolojariaren begi-goipea. Ta, orrezgailera, beti gizon beartu ta erri beartu onen algerako adierazpen apala agertuaz. Bere obra, trise xamarra da, mundu onetan tristea dan bezela beartuaren esera. Gizon beartuarena eta gure erri umilla-rena.

Bere eskolari oñarrik arkitze-koan, toki ta izen askoren artean, Parisen jarriak ditu erroak. Bere gogoaren bidez, era-berriturik, gure lurrera sustraituak. Eta, orregaitik, oraindik-orain ere here frutua ematen ari da.

Munduan enixutetsuago izatera



elidu zan Zuloaga eibartarra, milta bat da bere ondoan. Zuloaga nere errikerari artista on bezela ezer ukatzeko, Arteta-ren sentzua ta biltza askozaz gorago daude.

Ain ere, Arteta, ez munduan, baina Euskalerrian berian ere, ez da ezagutzen merezi duan ains ta merrez dunn mallan.

J. SAN MARTIN

Asteroko onek leandik agertu du zerbait Mish Garay'ez, eta ba-dakizute ezala bere edonor. N. Y. Erri Liburutegian sortalde ta eslaboi barrutiko buru, ogetamar izkuntzen jabe eta poloniarra jaitzuez. Amona euskalduna zuen eta badaki Aitor'en izkuntza. Euskaldunengan itxaropen aundia du, ta ez du aste euskera ligo danik (altzor arri-garri ta balotsuegia dalako mun-bait).

Gauza asko galdetzeko utzi gemituela, ta beriz ere joan nintzato lan-ordua apurizera.

Agur, aspaldi nintzan etortzeko, bana etorize ori luzatu egin zait.

-A, bai. Suffernetik aldetara omen zaude. Num bizi zera orain?

-Ementse bertan. 37 gn kaleko Broadway ertzean.

-Eta izango! Bost minutuko bidean beraz. Joango naiz egunen baten zu ikusiera. Ta zer da berri?

-Ba... orixe. Izgarri diozu zertara etorri naizen batzede.

-Baietz ueste du. Zeruko Argia. Benetan esateko, ederki ta interesgarri dator asteroko ori. Zure idazlana pozik irakurri nuen. Eskerrik asko. Bana, illara batzuk ez al zeuden oker?

-Bai. Ba-ziran olako batzuk, bana mamia da lenbizi eta lan ura nereba barik zurea zan. Euskalduneei oso atsegingarria izan zitzairen New York'ko alderdi auzetan zure mailako euskalzaileak ditugula jakitea. Nire lagun batzuk zera idatzi zidaten: Txapel arrekin ezin zitekeela asmatu poloniarra zinanik; euskaldunak ezin zitekeela asmatu poloniarra zinanik; euskalduna edo bai ohe-
to.

-ZERUKO ARGIA'tik idaz-

ki bat artu du arrezkera. Zer batzuk galdetzen ditzidate bertan euskerari buruz, ta euskera indartzeko bideari buruz. Bana orainoz ezin diet erantzün. Astirik gabe nabil. Geroago izango da... Ta, txapelari gogozkiola, bai al dakizu zerbait? 1978 urtean, Polonia'ko nere errian txapelakin jopelen ginola danok eskolara. Txapela zan eskol-umeen burukoa. Pentza zazu! Orain 50 urteko kontuak. Izan ere txapela Europa osoan zabaldu da. Ez-

Z. Argia argazkio, elektronikaz kopiatua NEW YORK'EN

togo dudarik, Euskalerririk Europa zear egindako konkista bat da txapela. Emen USA'n "french hat" deitzen diotu, "basque hat" deitu bearean... Bai, eta bizi al da euskera?

-Estatik ba... ba-dirudi inoiz ez-bezalako indarra artu dugula, bana alata guztiz ere erria geroago ta erdeladunago doa. Euskalzailek ezkerretik, erria eskubetik.

-Bai. Euskalerririk estu Renasentse dalakorik izan, ezta literatura zaarrik, ezta tradizionirik, eta orixe koxka. Berandu asi euskeraz idozten. Erri izkuntzak pizkortu ziran garaian, euskera ez gora ez hera gelditu zan. Or duzu Trekoslobakia; iru giralde luze zear ilik egon zan arago literatura, bana zer? Bazien elerri zearra, bana zuegan tradizio ta onarri, ta salbatu izan da Hungriako literaturaren kondaira ere berdintsu da. Katalan literaturari orobat gertatu zitzaion, bana errenazimentu-garaian

etzan lorik egon, eta begira gaur zear indartsu euskeraren aldean. Ez auztu katalan literatura espantola hano zaaragoan dala.

-Bai noski, eta ganera katalan erriak irakurri egiten du bere izkuntzaz idatzirik literatura; euskaldunak, ordea...

-Aor dago ba, aor. Euskaldunak irakurri etzuela egiten bere izkuntza. Itzein bai ta irakurri ez. Orrela ezin ditke jarraiki gaurko egunean. Beorbada oiturarik-eza gaitik izango da.

(Parre algera atera zitzaidan neri detalle ori entzuten).

-Ta, zer ueste duzu egin dituekeela dialektuekin daukugun prolemaz?

-Traba aundia dala. Bizkaitarra ta zuberotarra ezira elkar-konprenizten. Dialektu bakar bat onartu eta besteak galtzera eman, ezin dezakegu da. Beraz, nik egingo nukeana auxe da. Euskera bakar bat ometitu literaturan, ta ori izango litzake, gipuzkerana-naastua. Euskal literatu-

ezin dute inolaz ere elkar-ulertu. Orain komunistak zer egin dute? Pekin aldekoa onarritzat artuz dialektu guztien artean izkuntz ofizial bat osatu dute. Eskoletan lurralde bertako dialektu irakosten da lenbiziko bi urtetan, eta andik aurrera izkuntz ofizial berri ori. Orrela, bai idatzi bai mintzatzet timar elkar-ulertzea izango dute.

-Euskalerrian ere egin ditueke ori, orlara jarri ezkeroz.

-Ba-litete ta bear litzake. Orretarako, lenbizi Euskaltzaindia berpistu bear da, euskaltzainak obligatu euskal-dialektuak ongi estudiatu ditzaion. Ori egin-dakoan, izkuntza ofizial bat asmatu, osatu, eratu, tuntu eta erabaki argi eta zarak. Erabaki batzede ere. Au da, idazle guztizuriak errespertatu bearko lutekean EUSKERA BATUA.

Dr. John L. Mish Garay jaunak beste jangarri asko esan zitkidan, bana galdur. Espanolez itzein genduen eta here itzak itzulita daude; ez ordea here esanak. Euskeraz ederki idozten du, bana mintzatzeko ezta erretasunik eta erderaz aritu ginan. Ederki daki Beronantesen izkuntza, sintaxis-utirik bat ez. Buktatzean, agur egiatukoan, au erantsi zuen.

-Ezizut esan len. Zeruko Argia emengo Liburutegiko lagun batzuei erakutsi nien, eta denak pozik. Nire argazkio dalkorren ori ari elektronikaz atez dionu fotografia eta kasetegian jarri, lauki-barruan sartuta.

Ta beste gabe besteok eman da agur egin non euskalzaile ospetsuari. Eguinen baten, Zeruko Argiaren argitaratzailleren bat New York'era etorri ta itxumintuan fotografi elektronikoa orrekin auzez-aur argitaratu bada... artuko du sustotzea.

JK. MALLEA OLAETXEA